


Gaia jarrita

Joseba Ramirez



Intxaurrendoko gastronomia astea

Doinua:

«Santa Barbara»

Juan Mari, Martin, Pedro ta Karlos badugu zenbait aditu, sukaldariak jana goxatzen badu nahikoa meritu. "Intxaurrendoko astea" dela zeinek ez al du aditu? sabela pixkat goxatzen ere behar genuke aritu, ongi etorri mahai inguruan denok elkartzen bagaitu.

Aisialdi berria

donostiar guztiok aisialdiaz era askatzaile batean disfrutatzeke eman beharreko lehenengo pausoa gure herria askatzea litzateke, horrekin batera guztien lan eta bizi baldintzak bermatzea: ordu extreko ez dute aisialdiaz gozatzen laguntzen ezta aldi baterako eta gaizki ordindutako kontratuek ere. Etxeen prezio ikaragarria eta langabezia murriztu beharko lirateke gure aisialdirako proposamena gauzatu dadin.

Eta hori guztia laster lortuko dugunez (ba ote?) gauza dibertigarriagoetan pentsatzeari ekingo diogu. Gure nahia donostiarrak askeagoak izatea bada, zentzurik gabe kontsumotik eta telebista aurreko besaulkietatik aldenitu beharko genituzke. Horretarako heziketa (adin guztietan beharrezkoa eta atsegina) berri bat beharrezkoa litzateke baina honetaz gain udal plangintzetan aisialdirako proposamen hauek egingo genituzke:

- Ludotekak eta haur txokoak auzo guztietan; gure negu euritsuan jolaserako eta irudimenarako parada emango liekete mota guztietako haur zein gaztetxoeei (eta zergatik ez helduei?). Gazteentzat berriz elkarrekin egoteko topaguneak sortuko genituzke; bere arazo, amets zein ideiak aurrera eramateko aukera eskainiko lukete Gazte Leku hauek.

- Auzoetan aisialdirako lehendik dauden ekipamenduetan (kiroldegiak, kultur etxeak, liburutegiak, ludotekoak...) ordu-tegiak zabaltzea: gauetan eta asteburuetan bertan sartzeko aukera emanaz.

- Baina Donostian eguraldi ona iza-



Argazkia: Imanol Otegi

ten dugu batzuetan eta auzo gehienetan daude gune egokiak honetaz disfrutatzeke; dena den, zergatik ez gune hauek ugartu eta kotxei lekua kendu? Auzo guztietan oinezkoentzat eta bizikletentzat bideak zabalduko genituzke, eta gure hiriko zonalde gehienak jolaserako edo atsedenerako gune bihurtuko: musika, antzerkia, jolasak, asanbladak, merienda... edonon egitea oso dibertigarria litzateke. Azken finean, kalea, pertsonen arteko harremanak bultzatzeko gunea izatea. Baina ez bakarrik Erdialdean!

- Azkenik, gure hiria turistikoa izan behar bada, bere edertasuna soilik erakutsi beharrean, zergatik ez erakutsi gure herri zaharraren historia, kultura, arazak eta etorkizuna?

- Ahaztu gabe plangintza hauek diseinatzeko donostiar guztien parte hartzea beharko litzatekela, eta batez ere elkarte zein ekimen ezberdinetan lan egingo dutenena.

JOSUNE MAYOR

Urtxintxa aisialdiko eskola.



Ingurapena :
Olio-Akuarelak,
Laminak-Posterak,
Argazkiak

Iparragirre, 15 - Telf : 32 01 57

IRUTXULOK korrespontsalak
behar du Amara Berrin eta Parte zaharrean.

Deitu 943-429593
telefono zenbakira